



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

07/11/18

Bizkaiko Foru Aldundiak berretsi egin dau Bizkaiko talentuaren eta bardintasunaren aldeko apustua 2019rako Aurrekontu Orokorren Proiektuan

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2019ko Aurrekontuen Proiektuan Bizkaiko Foru Aldundiko Sail bakotxari esleitutako kontuak zehazteko informazio saioak hasi ditue gaur. Gaur Ogasun eta Finantza, Euskera eta Kultura eta Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun Saileko arduradunek zabaldu ditue azalpenen txandea.

Euskera eta Kultura eta Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun sailetako titularrek berretsi egin dabe aurton Foru Aldundiak Bizkaiko talentuaren eta bardintasunaren alde egiteko aurreikusten dauen apustua. Teresa Laespada diputatuak iragarri dauenez, bardintasunaren aldeko bultzada horri esker, Sail guztiek, gitxienez, genero ikuspegia barru hartzen dauen programa bat sartu dabe aurrekontuan.

Ekonomia eta Ogasuneko batzordeko informazio saioak hasi dituan lehenengoa José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatua izan da, joan dan urriaren 31n Bizkaiko Batzarretan erregistrau zan Bizkaiko 2019ko Aurrekontuen Proiektuaren laburpena eginez. 2019rako Aurrekontu Orokorren Proiektuak 8.216,7 milioi euroko diru-sarrerak eta gastuak aurreikusten ditu.

Kopuru horretatik, 6.573,049 milioi erakundeakaz dagozan konpromisoak betetera bideratu dira, Eusko Jaurlaritzagaz, batez be, eta 1.643,660 milioi euro kudeaketa propiorako erabiliko dira, beharginen gastuen atala barru dala. Onura gehien atarako dituen Sailak, aurrekontuaren ia erdia, 559 milioi, eroango dauen Gizarte Ekintza eta 301 milioi euro jasoko dituan Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapena izango dira. Seigarren urtez jarraian, Aldundiak “zero” zor garbia eukiko dau, amortizetan dauen zor berbera jaulkiko dau eta: 119,4 milioi.

OGASUNA ETA FINANTZAK

Ogasun eta Finantza sailak, bere aldetik, 127,7 milioi euroko aurrekontua eukiko dau 2019an, hau da, 2018ko aurrekontua baino 3,3 milioi gehiago. Erdia baino gehiago beharginen gastuetara joango da, 72,2 milioi euro, hain zuzen be. Erreserba kopuruari jagokonez, Lantik foru erakunderako erreserbak aipatu behar dira. Sailari euskarri teknikoa emoten deusnan enpresa informatikoak 31 milioi euro jasoko ditu aurrekontuetatik.

Inbertsinoen atalak, aurreko ekitaldian ez bezela, 2,8 milioi euroko jatsierea eukiko dau. Murrizketa hori, Jolas Parkearen eraisketa lanak eta Ogasuneko eraikinaren fase garestienak amaitu diralako etorriko da. Halanda be, Kaputxinoak kaleko eraikineko lanek 1,3 milioi euroko zenbatekoa eukiko dabe 2019an.

Lehenengo saioa hastean, Iruarrizagak Ogasun eta Finantza Sailaren 2018ko Aurrekontuaren egikaritze maileka be zehaztu dau –Talde Mistoak eskatuta–. Foru

Diputatuak, orokorrean, programa gehienetan egikaritzea “nahiko altua” izango dala aurreikusi dau.

Inbertsinoen atalean egin dauen aipamen bakarra, Jolas Parkearen eraisketa lanetara zuzendutako partidea izan da, 900.000 euro ingurukoa, aurrekontuetan 1,6 milioi euroko partidea jasoten eban arren. Egikaritu ez dan partida hori “ez da bestelako lanetara zuzenduko”, ekitaldiaren amaierako kontabilidadeko emaitzaren parte izango da.

EUSKERA ETA KULTURA

Euskera eta Kultura Sailak, bere aldetik, 47.686.274 euroko aurrekontua eukiko dau 2019rako, hau da, 2018an baino %4,71 gehiago. Euskera arloak 7.269.000 euro izango ditu (+%7,83); Kirolek 8.070.000 euro (+%1,73); Kulturak 29.455.274 euro (+%3,74); eta Zerbitzu Orokorrek 2.800.000 euro (+%15,08). Sail horretako arduradunak, Lorea Bilbaok, Talde Mistoak galdetuta, 2018ko aurrekontuaren betete maileak, urtearen bukaeran %100ekoa izango dala adierazo dau.

Kultura Sailaren barruan, Bilbaok azpimarratu dau Aldundiak indartu egingo dituala zenbait kultur proiektu, Loraldia, Fair Saturday edo Break On Stage, hain zuzen be, azken jarduera horren partidea %50 altuagoa izango da. Beste proiektu batzuk indartzen be jarraituko dau, Ertibil, adibidez, gure artista gazteen erakusketak Bizkaitik kanpora eramateko, euren lana ezagutuazoteko. Lurralde barruan eta lurraldetik kanpo talentua sustatzeko programek 7.683.000 euroko partidea eukiko dabe.

Foru Aldundiak partida barriak be aurreikusi ditu urte honetarako. Azpimarratzekoak dira ikus-entzunezko ekoizpenari emongo jakozan 100.000 euroak; EHU-UPVko Mikel Laboa Katedragaz lankidetzaz izateko 100.000 euroko partidea, “tokiko eragile nagusiak ezagutuazoteko”; eta Euskal Aktoreen Batasuna buru dan proiektu bati emongo jakozan 100.000 euroak, “zaleak sortzeko”, antzerkia ikastetxeetara hurbilduz.

Itsasoko Ondare Planaren partidea %30 altuagoa izango da, 143.000 eurora helduz; horri esker, hainbat proiektu aurrera eroan ahal izango dira, Antxustegi, Mendieta edo Caisson Marítimo izenekoa, besteak beste. Museoen eta hedapenaren arloak 15.497.000 euro izango ditu; bertan, azpimarragarriak dira Euskal Museora zuzendutako 1.625.000 euroko partidea eta, Bilboko Arte Ederren Museora zuzendutako 2.267.000 euroak.

Kirol arloaren barruan, azpimarratzekoak dira eskolako kirolean egingo dan 1.856.000 euroko inbertsinoa; kirolariek eta taldeek estaduko eta nazinoarteko goi mailako kirol lehiaketetan daukien partaidetzari laguntzeko 915.000 euroak; eta 80.000 eurogaz (+%166,67) kiroleko behargin teknikoaren prestakuntzari emongo jakon bultzadea.

ENPLEGUA, GIZARTERATZEA ETA BERDINTASUNA

Horren ostean, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun diputatu andreak, aurrekontuak zehazteko gaur egin dan azkenengo Ekonomia eta Ogasun batzordean, bere sailak erabilgarri eukiko dauen kopurua azaldu dau. Bere kasuan 54.770.000 eurokoa izango da, beharginak alde batera itzita. Horrek %5,88ko igoerea erakusten dau 2018 honetako zifraz alderatuta. Bere berbetan, partida horri esker, “enpleguaren, alkartasunaren, gizarte kohesinoaren eta berdintasunaren aldeko apustuari eta konpromisoari eutsi ahal izango jako, gastuari eusteko printzipioari eutsiz”.

2019. urtean azpimarratzekoa izango da Bardintasun arloko gastuaren hazkundera, %35,8ko igoera aurreikusten dalako, 1.424.000 eurora heldu arte. Datu aipagarrien artean, aurton Batzar Nagusiek onetsi daben Bardintasunerako Foru Arauaren garapena azpimarratu dau; Aldundiak 300.000 euro erreserbau ditu azterlan eta behar teknikoak egiteko, 182.000 euro kanpoko beste behar batzuetarako eta 50.000 euro bilera, konferentzia eta ikastaroetarako.

Batzarretako taldeei emondako azalpenean, Laespadak genero eraginaren aurretiazko ebaluazino txostenak be azpimarratu ditu. Behar hori 2014an hasi zan. Txosten horretan adierazoten danez, 2019rako Aurrekontu Orokorren Proiektuak genero ikuspegia dauka sartuta “gastu publikoaren %75 baino apur bat gehiagoan”.

Bere kopuruan gora egin dauen beste programa bat “emakumea eta familia” izenekoa da; 2019an 6,92 milioi euroko partidea eukiko dau, 2018an baino %9,87 gehiago. Arlo horretan azpimarratzekoa da emakumeen zentroetan egoitza harrera zerbitzura zuzendutako 3,10 milioi euroko partidea, edo emakumea eta familia kolektibora zuzendutako baliabide espezializauen prestazinarako dagozan 2,37 milioiak.

Gizarteratze programaren barruan, Goihabera zuzendutako partidak %50 egin dauela gora azpimarratu behar da (300.000 euro) eta baita Hasira zuzendutakoak be. Azken horretarako, Foru Aldundiak 62.000 euro (+%94,5) bideratu ditu.

Bihar informazino saioen bigarren jardunaldia egingo da, eta bertan Iraunkortasun eta Ingurune Natural, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapen eta Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio sailtako titularrak etorriko dira azalpenak emoten.

NOTA DE PRENSA

07/11/18

La Diputación Foral se reafirma en su apuesta por el talento vizcaíno y por la igualdad en el Proyecto de Presupuestos Generales para 2019

Las Juntas Generales de Bizkaia han iniciado hoy las sesiones para informar de las cuentas asignadas en el Proyecto de Presupuestos de 2019 a cada Departamento de la Diputación Foral de Bizkaia. Hoy abrían el turno de explicación los y las responsables de Hacienda y Finanzas, Euskera y Cultura, y Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

Las titulares de los departamentos de Euskera y Cultura, y el de Empleo, Inclusión Social e Igualdad han constado la apuesta que este año prevé realizar la Diputación Foral por el talento vizcaíno y por la igualdad. La diputada Teresa Laespada ha anunciado que este impulso por la igualdad ha logrado que todos los Departamentos hayan presupuestado al menos un programa presupuestado con perspectiva de género.

El diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha arrancado las sesiones informativas en el seno de la Comisión de Economía y Hacienda realizando un resumen del proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2019 que fue registrado en la Cámara vizcaína el pasado 31 de octubre. El Proyecto de Presupuestos Generales para el año 2019, que contempla un total de ingresos y gastos por 8.216,7 millones de euros.

De este montante, 6.573,049 millones se apartarán para cubrir los compromisos institucionales, especialmente con el Gobierno Vasco, y 1.643,660 millones serán utilizados para gestión propia incluyendo el apartado de gastos de personal. Los departamentos más beneficiados serán Acción Social que se lleva casi la mitad del presupuesto, o sea 559 millones, y Desarrollo Económico y Territorial, cuya consignación alcanzará los 301 millones. La Diputación volverá a tener, por sexto año consecutivo, un endeudamiento neto “cero”, ya que se emitirá la misma deuda que se amortice: 119,4 millones.

HACIENDA Y FINANZAS

Por su parte, el departamento de Hacienda y Finanzas contará en 2019 con un presupuesto de 127,7 millones de euros, lo que implica un incremento de 3,3 millones respecto al presupuesto de 2018. Más de la mitad se concentra en los gastos de personal que se llevarán 72,2 millones de euros. Le siguen por volumen las reservas para la entidad foral Lantik. La empresa informática que da soporte técnico al departamento se llevará de los presupuestos 31 millones de euros.

En el capítulo inversor, a diferencia del ejercicio pasado, éste registra un descenso significativo de 2,8 millones. Esta disminución se debe a la finalización del derribo del parque de atracciones y las fases más costosas de las obras del edificio de hacienda. Aun así las obras del edificio de Capuchinos contarán en 2019 con un importe de 1,3 millones de euros.

Al comenzar esta primera sesión, Iruarrizaga también ha detallado – a petición del Grupo Mixto- el grado de ejecución del Presupuesto de 2018 de Hacienda y Finanzas. El Diputado Foral ha previsto, en general, una ejecución “bastante alta” en la mayoría de sus programas.

Únicamente ha apuntado, que en el plano de inversiones, la partida adjudicada a demolición del parque de atracciones rondó los 900.000 euros, a pesar de contar con una partida presupuestaria de 1,6 millones. Esta partida no ejecutada “no será destinada a más obras”, sino que pasará a formar parte del resultado contable del cierre del ejercicio.

EUSKERA Y CULTURA

Por su parte, el Departamento de Euskera y Cultura dispondrá, para el año 2019, de un presupuesto de 47.686.274 euros, un 4,71% más que el año 2018. El área de Euskera contará con 7.269.000 euros (+7,83%); Deportes con 8.070.000 euros (+1,73%); Cultura con 29.455.274 euros (+3,74%); y Servicios Generales con 2.800.000 euros (+15,08%). La responsable de esta área, Lorea Bilbao, a preguntas de Grupo Mixto, ha indicado que el grado de cumplimiento del presupuesto de 2018, a final de año será del 100%.

Dentro del área de cultura, Bilbao ha resaltado que la Diputación reforzará proyectos culturales como Loraldia, Fair Saturday o Break On Stage; esta última actividad ha visto incrementada su partida en un 50%. También seguirá potenciando proyectos como Ertibil para “llevar” las muestras de nuestros jóvenes artistas fuera de Bizkaia con el objeto de dar a conocer su trabajo. Los programas de promoción del talento dentro y fuera del Territorio contarán con una partida de 7.683.000 euros.

La Diputación Foral también ha dispuesto este año nuevas partidas. Destacan el importe de 100.000 euros para el apoyo a la producción audiovisual; la partida de 100.000 euros para la colaboración con la Catedra Mikel Laboa de la UPV- EHU, para “dar a conocer a los principales agentes locales”; y el impulso, con 100.000 euros, de un proyecto capitaneado por Euskal Aktoreen Batasuna con el objetivo de “generar afición” acercando el teatro a los centros educativos.

El Plan Patrimonio Marítimo verá incrementada su partida en un 30% alcanzando los 143.000 euros; esto permitirá desarrollar proyectos como el Antxustegi, Mendieta o el Caisson Marítimo. El área museística y de difusión contará con un importe de 15.497.000 euros; aquí destaca la partida de 1.625.000 euros destinados al Museo Vasco y los 2.267.000 euros destinados al Museo de Bellas Artes de Bilbao.

Dentro del plano deportivo, destaca la inversión 1.856.000 euros en el deporte escolar; los 915.000 euros para el apoyo de la participación de deportistas y clubes en competiciones deportivas del más alto nivel, tanto estatal como internacional; y el impulso de la formación de personal técnico deportivo con 80.000 euros (+166,67%).

EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD

A continuación, la diputada de Empleo, Inserción Social e Igualdad, Teresa Laespada ha explicado, en la última comisión de Economía y Hacienda de la jornada para detallar los presupuestos, el disponible departamental que, en su caso, alcanzará los 54.770.000 euros sin el capítulo de personal. Esto supone una subida del 5,88% respecto a las cifras de este año 2018. La partida servirá, según ella, para “mantener la apuesta y compromiso por el

empleo, la solidaridad, la cohesión social y la igualdad, manteniendo el principio de contención de gasto”

El año 2019 destacará por el incremento del gasto en materia de Igualdad, ya que se prevé un aumento del 35,8% hasta alcanzar los 1.424.000 euros. En su haber, destaca el desarrollo de la Norma Foral de Igualdad, aprobada este año por las Juntas Generales; la Diputación ha reservado un montante de 300.000 euros para estudios y trabajos técnicos, 182.000 euros para otros trabajos exteriores, y 50.000 euros para reuniones, conferencias y cursos.

En su explicación a los grupos junteros, Laespada ha destacado también los informes de evaluación previa de impacto de género, trabajo que se inició en el año 2014. Según este informe, el Proyecto de Presupuestos Generales para 2019 tiene integrada la perspectiva de género “en algo más del 75% del gasto público”.

Otro de los programas que ha sufrido un incremento en su dotación es el de “mujer y familia”; en 2019 cuenta con una partida de 6,92 millones de euros, un 9,87% más que en 2018. En esta área destaca la partida de 3,10 millones de euros destinada al servicio de acogimiento residencial en centros de mujer o los 2,37 millones de euros para la prestación recursos especializados destinados al colectivo mujer y familia.

Dentro del programa de inclusión social, destaca el incremento de un 50% de la partida destinada a Goihabe (300.000 euros) o a Hasi. Para esta última, la Diputación Foral ha destinado 62.000 euros (+94,5%).

Mañana se celebrará la segunda jornada de sesiones informativas en la que comparecerán los y las titulares de los departamentos de Sostenibilidad y Medio Natural, Desarrollo Económico y Territorial, y Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio.